



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
Ingurumen Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Medio Ambiente

Ebazpena, Ingurumen Sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Presen eta Urtegien Segurtasun Erregistroa sortzeko xedapen orokor baten proiektuari buruz aurretiazko kontsulta herritarren esku jartzen duena.	Resolución del Viceconsejero de Medio Ambiente por la que se somete a consulta previa a la ciudadanía el proyecto de una disposición de carácter general por la que se crea el Registro de Seguridad de Presas y Embalses de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ingurumen Sailburuordetzak egokitzen du xedapen orokor bat egitea Euskal Autonomia Erkidegoan Presen eta Urtegien Segurtasun Erregistro bat sortzeko, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren 363. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzeko. Errege Dekretu horren bidez, presen eta urtegien segurtasunaren arloan eskumena duen herri-administrazioari erregistro hori sortzea ezartzen zaio.	La Viceconsejería de Medio Ambiente considera oportuna la elaboración de una disposición general con el objeto de crear un Registro de Seguridad de Presas y Embalses en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en cumplimiento de la obligación establecida en el artículo 363 Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Dominio Público Hidráulico, que impone a la Administración pública competente en materia de seguridad de presas y embalses la creación de dicho Registro.
Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege- edo erregelamendu-proiektu edo -aurreproiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da, administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arauaren eraginpean egon daitezkeen pertsona eta erakunde adierazgarrien iritzia jasoko da, ekimenarekin konpondu nahi diren arazoei, hura onartzeko premiari eta aukerari, arauaren helburuei eta egon daitezkeen irtenbide erregulatuak eta ez-erregulatuak buruz.	El artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, establece que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de las personas y de las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma acerca de los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa, la necesidad y oportunidad de su aprobación, los objetivos de la norma y las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.
Xedapen Orokorak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua xedatzen duenez, xedapen orokor bat idatzi aurretik,	El artículo 11, de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, dispone que, con carácter

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 XXX XXX – e-mail: xxxxx@euskadi.eus

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, egotza elektronikoan egiaztagarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8D5M-EHFB

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: JOSU BILBAO BEGOÑA | 2026/07/01 17:31:47



kontsulta publikoan eskatuko da herritarren gizartearen iritzia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taularen bidez	previo a la redacción de una disposición de carácter general, se recabará en consulta pública, la opinión en la sociedad de la ciudadanía, a través del tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
Ebazpen honen bidez, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan eta ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitako aurretiazko kontsultaren izapidea betetzen da, etorkizuneko arauaren eraginpeko herritarrek iritzia emateko aukera izan dezaten.	Mediante la presente resolución, se da cumplimiento al citado trámite de consulta previa previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, a los efectos de que, la ciudadanía afectada por la futura norma, tengan la posibilidad de emitir su opinión.
Horregatik guztiagatik, HERRITARRAK ESPRESUKI GONBIDATZEN DIRA, IRITZIA EMAN DEZATEN idaztekoa dugun etorkizuneko xedapen orokorrari buruz ebazpen honetan ematen den informazioari buruz.	Por todo ello, se INVITA EXPRESAMENTE A LA CIUDADANÍA A PRONUNCIARSE acerca de la información que se contiene en la presente resolución sobre la futura disposición de carácter general cuya elaboración se va a iniciar.
Etorkizuneko arauari buruzko informazioa eranskinean dago, eta honako alderdi hauek jasotzen ditu: a) Araua onestea beharrezko eta egoki den. b) Arauaren helburuak. c) Arauaren bitartez konpondu nahi diren arazoak d) Ea beste konponbiderik badagoen arauketa erabiliz edo beste nolabait.	La información sobre la futura norma se contiene en el Anexo y versa sobre los siguientes aspectos: a) La necesidad y oportunidad de su aprobación b) Los objetivos de la norma. c) Los problemas que se pretenden solucionar d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.
Herritarrek egoki iritzitako iradokizunak edo oharrak aurkez ditzaten, 15 egun balioduneko epea ematen da, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan sartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.	Se establece un plazo de 15 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la inclusión en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de la presente resolución, para que la ciudadanía presente todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 17.1f), 2.b eta 3 artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau	En virtud de las competencias atribuidas en el art. 17.1 f), 2.b) y 3 del DECRETO 410/2024, de 3 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento Industria, Transición Energética y Sostenibilidad.

EBATZI DUT:	RESUELVO:
Lehenengoa. - Euskal Autonomia Erkidegoko Presen eta Urtegien Segurtasun Erregistroa sortzeko xedapen orokor baten proiektua egin aurretik, herritarrei kontsulta egitea.	Primero. - Someter a trámite de consulta previa a la ciudadanía, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de disposición de carácter general con el objeto de crear el Registro de Seguridad de Presas y Embalses de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Bigarrena. - Herritarrek hamabost egun balioduneko epean helarazi ahal izango dituzte ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritziak, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.	Segundo. - La ciudadanía que así lo considere puede hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta resolución en el plazo de quince días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el del tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.	En Vitoria-Gasteiz, a fecha de firma electrónica.

Josu Bilbao Begoña
Ingurumen Sailburuordea-Viceconsejero de Medio Ambiente

ERANSKINA

Araua onartzeko beharra eta egokitasuna

Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 363. artikulua ezartzen duenez, presen eta urtegien segurtasunaren arloan eskumena duen administrazio publikoak Presen eta Urtegien Segurtasun Erregistro bat izan behar du. Erregistro horretan inskribatu behar dira bere eskumeneko azpiegiturak, araudi aplikagarrian aurreikusitako ezaugarriak betetzen badituzte, eta segurtasunaren kontrolaren arloan emandako administrazio-ebazpenak eta txostenak jaso behar dira.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Presen eta Urtegien Segurtasun Erregistroa sortu eta arautuko duen xedapen bat onartzea, haren antolamendua eta funtzionamendua ezarri indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak betetzeko eta azpiegitura horien segurtasunaren kudeaketa, kontrol eta jarraipen egokia errazteko.

Arauaren helburuak

Etorkizuneko xedapenaren xedea da Euskadiko Presen eta Urtegien Segurtasun Erregistroa sortzea eta arautzea, eta erregistro horren antolaketa, edukia, funtzionamendua eta inskripzio-araubidea zehaztea, azpiegitura horien segurtasunari buruzko informazioa kudeatzeko eta eguneratzeko tresna gisa.

Konpondu nahi diren arazoak

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago Presen eta Urtegien Segurtasun Erregistroaren araubide juridikoa ezartzen duen berriazko araudirik, ezta erregistro

ANEXO

La necesidad y oportunidad de su aprobación

El artículo 363 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico, aprobado por Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, establece la obligación de que la Administración pública competente en materia de seguridad de presas y embalses disponga de un Registro de Seguridad de Presas y Embalses, en el que se inscriban las infraestructuras de su competencia que reúnan las características previstas en la normativa aplicable, y se anoten las resoluciones administrativas e informes emitidos en materia de control de la seguridad.

En este contexto, resulta necesario aprobar una disposición que cree y regule el Registro de Seguridad de Presas y Embalses de Euskadi, estableciendo su organización y funcionamiento para dar cumplimiento de las obligaciones establecidas en la normativa vigente y facilitar una adecuada gestión, control y seguimiento de la seguridad de estas infraestructuras.

Los objetivos de la norma

La futura disposición tiene por objeto crear y regular el Registro de Seguridad de Presas y Embalses de Euskadi, determinando su organización, contenido, funcionamiento y régimen de inscripción, como instrumento para la gestión y actualización de la información relativa a la seguridad de dichas infraestructuras.

Los problemas que se pretenden solucionar

Actualmente no existe una regulación específica en la Comunidad Autónoma del País Vasco que establezca el régimen jurídico del Registro de Seguridad de



hori osatzen duten datuak inskribatzeko, aldatzeko, eguneratzeko eta ezerezteko prozedurak zehatz-mehatz zehazten dituenik ere.

Presas y Embalses ni que determine de forma detallada los procedimientos de inscripción, modificación, actualización y cancelación de los datos que deben integrarlo.

Egoera horrek zaildu egiten du segurtasun-kontrolpeko azpiegiturei buruzko informazioa modu homogeenokudeatzea, bai eta titularrei eta administrazio eskudunari dagozkien betebeharren jarraipena egitea ere.

Esta situación dificulta la gestión homogénea de la información relativa a las infraestructuras sujetas a control de seguridad, así como el seguimiento de las obligaciones que corresponden a sus titulares y a la Administración competente.

Etorkizuneko arauaren helburua da segurtasun juridikoa ematea, prozedura argiak finkatzea, azpiegitura horiei buruzko informazio eguneratua bermatzea eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan ezarritako betebeharra betetzea.

La futura norma busca aportar seguridad jurídica, fijar procedimientos claros, garantizar información actualizada sobre estas infraestructuras y cumplir con la obligación establecida en el Reglamento del Dominio Público Hidráulico.

Ordezko irtenbide arautzaileak eta ez-erregulatzaileak

Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias

Ez da identifikatu lortu nahi diren helburuak modu egokian lortzea ahalbidetzen duen alternatibarik, Estatuko araudiak Presen eta Urtegien Segurtasun Erregistro bat egotea eskatzen baitu, administrazio eskudunak kudeatuta. Ondorioz, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan erregistro hori sortu eta arautuko duen xedapen bat onartzea.

No se identifican alternativas que permitan alcanzar de manera adecuada los objetivos perseguidos, dado que la normativa estatal exige la existencia de un Registro de Seguridad de Presas y Embalses gestionado por la Administración competente. En consecuencia, resulta necesaria la aprobación de una disposición que cree y regule dicho Registro en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.